

EHZ festibala

–Egun on, entzuleok. Asteburu honetan, EHZ festibala ospatuko da Arberatzen. Gaur, Mikel Arozamena antolatzailea dago gurekin, eta informazio gehiago eskatuko diogu. Egun on, Mikel.

–Bai, egun on.

–Festibala Arberatzen izango da.

–Bai, hori da. Arberatze Nafarroa Behereko herri txiki bat da, eta, aurten, han ospatuko da EHZ festibala.

–Nola iritsiko gara Arberatzera?

–Bada, autoz etorri ahal da, noski, baina, esan bezala, Arberatze herri txikia da, eta aparkatzeko leku gutxi dago.

–Orduan, autobusez joatea hobeto.

–Bai, autobus-zerbitzu zabala egongo da, eta onena autobusez etortzea da. Webgunean daude ordutegiak.

–Ados. Eta aurten bizikletaz ere joango da jendea, ezta?

–Bai, hori espero dugu. Bizikleta-aparkalekuak jarri ditugu herrian, eta jendea animatzen dugu bizikletaz etortzera.

–Ederki, Mikel, eskerrik asko. Eta zuek, entzuleok, badakizue: autoz, autobusez edo bizikletaz, baina animatu eta joan Arberatzera.